

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

Pacto Social
por la Vivienda

2 0 2 2 ▪ 2 0 3 6

2022 2023 **2024** 2025 2026 2027 2028 20





**Etxebizitzaren
aldeko Itun Soziala**
Pacto Social
por la Vivienda
2 0 2 2 • 2 0 3 6

Etxebizitza-eskubidearen
benetako eraketa bizkortzeko
konpromiso partekatua.



aurkibidea

orrialdea

- | | | |
|--|----|----|
| Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala
2022-2036. | 1. | 3 |
| Jarraipen kualitatiboa.
Jardunbideetako aurrerapenak. | 2. | 11 |
| Balorazio orokorra eta Itunaren esparruan bultzatu
beharreko hurrengo jarduketak. | 3. | 21 |

Itun berritua etxebizitza eskuratzeko erronka sozialaren aurrean



Etxebizitza eskuratzea erronka bihurtu da botere publikoentzat, baita euskal gizarte osoarentzat ere.

Legearekin (3/2015 Legea, ekainaren 18koa) Euskadi erreferente bat da Espainian etxebizitzarako eskubide subjektiboa arazuz artikulatzeari dagokionez, baina hori gauzatzeko hainbat neurri osagarri behar dira, sendoak, eutsiak eta elkarren artean koherenteak, hainbat frontetatik abiatuta.

Zeregin horretan, eragile ekonomiko eta sozial guztiak inplikatu nahi ditugu, eta inplikatu behar ditugu. Etxebizitzaren Itun Soziala lehen mailako tresna da Foro Sozial iraunkor bat eratzeko, etxebizitza gure ongizate-estatuaren oinarritzko zutabeetako bat izan dadin.

Koalizioko Eusko Jaurlaritza berriak erronka horri aurre egiteko konpromisoa hartu du, inpaktu eta irismen sozialaren arabera etxebizitza-politikan jauzi kualitatiboa, baina baita kuantitatiboa ere, emateko. Itun Sozialaren helburuak berresten ditugu, eta indartu egin nahi ditugu legealdi honetan 7.000 etxebizitza babestu berri eraikita, merkatuan esku hartuta etxebizitzak erosiz alokairu babestura bideratzeko, eta eremu tentsionatuetan plan espezifikoak garatuta.

Irismen handiko konpromisoa da, guztioi dei egiten diguna, gure gizartearen etorkizunerako eta pertsonen ongizaterako, elkarriketaren eta lankidetzaren bidez oinarritzko eskubide baten alde lan egiteko.





Consejero Departamento de Vivienda y Agenda Urbana
Eusko Jaurlaritza

1.

Etxebizitzaren aldeko
Itun Soziala
2022-2036

Testuingurua

Premia Soziala) (Garapen jasangarrirako aukera

Euskal herritar askok zailtasunak dituzte etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzeko.


Premiazkoa da etxebizitzaren birgaitze-lanen erritmoa bizkortzea, premia sozialak (irisgarritasuna, zahartzea eta abar) eta energiari zein klimari lotutako erronkak direla eta.

- + Garapen eta ekitate sozial handiagoak
- + Enplegu gehiago eta ekonomia-jarduera handiagoa
- + Jasangarritasun handiagoa



Epe luzeko ikuspegiarekin lan egitea, lankidetzara eta aliantzarak abiapuntu hartuta (17. GJH-A)





Eragile instituzional, ekonomiko eta sozialen arteko ituna da, baina baita euskal herritarrekin egindako «kontratu sozial» bat ere, non eragile sinatzaileek hainbat **konpromiso** hartzen dituzten, 2022–2036 aldian aplikatu beharreko 4 helburu kuantitatibotan, lehentasunezko 6 jardunbidetan, 25 gidalerrotan eta 3 gobernantza-tresnatan gauzatzeko.

4

helburu
kuantitatibotan

6

lehentasunezko
jardunbidetan

25

gidalerrotan

3


governantza-
tresnatan

Helburu nagusia)

Etxebizitza-eskubidea benetako eskubide bat izateko bidea

azkartzea kontuan izanda etxebizitza duin eta eskuragarria lortzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat dela eta Euskadi erabat konprometituta dagoela helburu horrekin. Horretarako, ezinbestekoa da etxebizitza-politika adostu, koherente eta epe luzeko bat izatea, gure gizarte-ereduaren oinarritzat hartzeko.

Helburu kuantitatiboak 2036



Lehentasunezko jardunbideak

Eragin zuzeneko 4 ildo

Etxebizitzan
inbertsio
handiagoa

Etxebizitzan inbertsio handiagoa

Etxebizitzan
gehiago
inbertitzea
pizgarrietan
oinarritutako
fiskalitatearen
bidez

Dimentsio
soziala

Etxebizitza-
politikaren
**dimentsio
sozialean**
sakontzen
jarraitzea

Txertatzea
orokortzea

Txertatzea orokortzea

Etxebizitza
udalaren
agenda
estrategikoan
txertatzea
orokortzea

Eraikuntzaren
sektore
erakargarria

Eraikuntzaren sektore erakargarri,

lehiakor eta
berritzailea
osatzea

Zeharkako laguntza 2 ildo

Datuen **intelligentzia** eta ebaluazio
aurreratua

Udal
estrategia

Inplikazio eta lankidetza publikoa,
pribatua eta soziala

Inplikazioa
eta
lankidetz

Itunaren governantza



Parte hartzeko

Herritarrek **parte hartzeko** prozesuak bultzatzea, **eragileen parte-hartzearen** osagarri.



Seguimiento

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren aurrerapenen **urteko jarraipen-txostena** egitea **euskal eragileei eta gizarteari**.

Etxebizitzaren Foroa

Etxebizitzaren Foroa sortu eta dinamizatzea, ituna sinatu duten eragileek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko espazio egonkorra izan dadin.





2.

Jarraipen kualitatiboa.
Jardunbideetako
aurrerapenak

Etxebizitzan gehiago inbertitzea pizgarrietan oinarritutako fiskalitatearen bidez.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Etxebizitzako gastu publikoa progresiboki handitzea, BPGd-aren % 1,5 ingurukoa izan arte, Europako herrialderik aurreratuenekin bat.</p>	<p>2023an, Etxebizitza Sailaren eta bere sozietate publikoen gastu bateratua 351 M€-koa izan zen. Alokairua sustatzeko prestazioen gastua, berriz, 80 M€-tik gorakoa izan zen. Kopuru horri, gainera, urteroko zerga-kenkariei dagozkien 450 M€-ak (gutxi gorabehera) gehitu behar zaizkio. Horrenbestez, etxebizitzako gastu publikoa BPGd-aren % 1 ingurukoa da gaur egun, gainerako euskal erakundeen aurrekontua kontuan hartu gabe.</p>
<p>Etxebizitzen birgaitze-lanetarako inbertsio pribatua progresiboki handitzea, BPGd-aren % 5 ingurukoa izan arte, Europako herrialderik aurreratuenekin bat.</p>	<p>Euskal familiek etxebizitzen birgaitze-lanetan egiten duten inbertsio pribatua eraikuntza-sektorearen BPGd-aren % 40koa da gaur egun. Hortaz, EAEko BPGd-aren % 2 baino zertxobait handiagoa da etxebizitzen birgaitze-lanetarako inbertsio pribatua.</p> <p>2023an emandako 3.883 obra handiko lizentzietatik, 3.433 (% 88) birgaitze-lanei dagozkie. 2024ko lehen hiruhilekoan, 965 lizentzia erregistratu dira dagoeneko, eta horietatik 871 (% 90,3) birgaitze-lanetarako dira.</p>
<p>Etxebizitza sustatuko duen eredu fiskal berria definitu eta ezartzea, zehaztutako lehentasun estrategikoak aintzat hartuz: baliabide pribatu eta sozialak alokairu babestuko etxebizitzara, deskarbonizaziora, irisgarritasunera... bideratzea.</p>	<p>Etxebizitza Sailak proposamen hori jasotzen duen txostena egin du, eta Ogasun Sailari zein 3 foru-aldundiei bidali die 2023ko otsailean. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari ere aurkeztu dio txostena, baita Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ponentzia Fiskalari ere.</p>
<p>Eragile pribatu eta sozial gehiago bideratzea etxebizitzaren arloko jarduketak finantzatzera, alokairu eskuragarria eta etxebizitzen birgaitzea ardatz hartuta.</p>	<p>2024ra arte, alokairuko 1.000 etxebizitza baino gehiago eraikitzeko laguntzak eman dira, 37 M€ guztira.</p>

Etxebizitzan gehiago inbertitzea pizgarrietan oinarritutako fiskalitatearen bidez.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Babestutako etxebizitzarako lurzoru publikoaren erreserba estrategikoa sortzea, alokairu eskuragarriko eskaintza publikoa handitzeko helburua bideragarria izan dadin. Lurzoru-erreserba estrategiko hori zentzu zabalean ulertu behar da, eta dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoru lehenetsi, etxebizitza-politikaren jasangarritasunaren aldeko ikuspegiarekin bat; hortaz, birgaitu beharreko eraikinak eta lehenago bizitegitarako erabilitako orubeak ere barne hartu ahal izango dira, horietan etxebizitza berriak eraikitzeko.</p>	<p>Euskal etxebizitza-politikaren lehentasun nagusietako bat izan behar du horrek, zalantzarik gabe, datozen urteetarako. Izan ere, azken urteotan nabarmen txikitu da Etxebizitza Sailaren eta horren mendeko erakundeen esku dagoen lurzoru publikoaren kopurua. Hala, Etxebizitza Sailaren eta Visisaren egungo lurzoru-erreserba 2.742 etxebizitzakoa da.</p> <p>Jardunbide hau indartu egingo du 12/2023 Estatuko Legeak, Etxebizitza Eskubideari buruzkoak, babes publikoko etxebizitzarako lurzoruen % 50ek alokairuko etxebizitzarako izan behar duela agintzen baitu.</p> <p>Nolanahi ere, funtsezkoa da udalek gai honetan inplikazio handiagoa izatea.</p>

Etxebizitzan gehiago inbertitzea pizgarrietan oinarritutako fiskalitatearen bidez.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Etxebizitza-politikak gainerako gizarte-politikekin –gizarte-zerbitzuak, gazteria, adinekoak, desgaitasuna, berdintasuna, enplegua eta abar– integrazio handiagoa izan dezan lortzea eta erantzun integralagoak ematen dituzten zerbitzuak eta programak abian jartzea. Zehazki, etxegabetasunari, familia ugariari eta halako errealitateei erantzun hobe ematea.</p>	<p>Alokabideren bidez, programa hauek garatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-egoera ahulean dauden eta trebetasun-faltagatik etxebizitza galtzeko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-laguntzako zerbitzua. • Laneratzeko enpresekin enplegua sortzen duen atezain-zerbitzua. • Bizikidetzaren eredu ezartzea. • Etxebizitza publikoaren mapa soziala, zerbitzuak ezartzerakoan beste baliabide eta erakunde batzuetara bidera daitezkeen premien diagnostikoa egiteko aukera ematen duena. <p>Etxebizitzaren Euskal Behatokiak honako hauek argitaratu ditu bere webgunean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEn Etxebizitzari buruzko Estatuko Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio-eremuak izendatzea arautzen duena. • Bizitegi-merkatuko tentsio-eremuak izendatzeko diagnostikoa eta ekintza-plana prestatzeko eredu. • Euskadiko tentsio-eremuei buruzko txostena eta udalerrietara zabaldutako azterketa. <p>Halaber, Etxebizitza Sailaren ardurapean dago orain etxebizitzarako prestazio osagarria, lehen Lanbideak kudeatzen zuena.</p>

Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Etxebizitza-politikak gainerako gizarte-politikekin —gizarte-zerbitzuak, gazteria, adinekoak, desgaitasuna, berdintasuna, enplegua eta abar— integrazio handiagoa izan dezan lortzea eta erantzun integralagoak ematen dituzten zerbitzuak eta programak abian jartzea. Zehazki, etxegabetasunari, familia ugariari eta halako errealitatei erantzun hobea ematea.</p>	<p>Gainerako gizarte-politikekiko integrazioari dagokionez, 17 sektore-planek hartzen dute barne etxebizitza gaur egun:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2022-2026). 2. Adinekoekiko Euskal Estrategia (2021-2024). 3. Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025). 4. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022). 5. Migrazio-erronka berriei erantzun integrala emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategia. 6. Euskarri Estrategia. 7. V. Gazte Plana (2022-2026). 8. Euskadiko Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sustatzeko Berpiztu Programa (2020-2024). 9. EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko III. Akordioa. 10. Bizitegi-bazterkeria larriaren aurkako II. Euskal Estrategia (2024-2028). 11. Inklusiorako V. Euskal Plana (2022-2026). 12. Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko Estrategia. 13. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua. 14. Euskadi Bultzatu 2050 Hiri Agendaren Foroa. 15. Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia. 16. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plan Estrategikoa (2021-2024). 17. Erreforma Programa Nazionala (Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministeria). <p>Etxebizitza Sailak plan horien gobernantza-espazioetan hartzen du parte.</p>

Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Etxebizitza-politikak gainerako gizarte-politikekin —gizarte-zerbitzuak, gazteria, adinekoak, desgaitasuna, berdintasuna, enplegua eta abar— integrazio handiagoa izan dezan lortzea eta erantzun integralagoak ematen dituzten zerbitzuak eta programak abian jartzea. Zehazki, etxegabetasunari, familia ugariei eta halako errealitateei erantzun hobea ematea.</p>	<p>Hona hemen etxegabetasunari erantzuteko tresna batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizitegi-bazterkeria larriaren aurkako Euskal Estrategia berria. • Etxebizitza-eskubide subjektiboa onartzea. Gero eta herritar gehiagori aitortzen zaie eskubidea: 2024ko lehen hiruhilekoan, 8.309 herritarri aitortu zaie, eta datozen hiletan 10.000 lagunengana iristea aurreikusten da. • 2024ko martxoaren 6an, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearekin, familia-etxebizitzatik kaleratzen diren eta egoera bereziki ahulean dauden pertsonen arreta emateko gizarte- eta etxebizitza-neurrien bidez. • Tramitazio-fasean dago lankidetzeta-hitzarmen bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Ekonomisten Euskal Elkargoaren eta Zinpeko Kontu Zentsoreen Institutuko Euskadiko Lurralde Elkartearen artean sinatutakoa, etxebizitza-edukitzaile handiek eskatzen duten hipoteka-bitartekaritzako zerbitzua emateko.

Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea.

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Gazteek etxebizitza eskuratzeko neurriak indartzea, Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak finkatutako herrialde-helburua betetzeko: emantzipazio-adina 29 urtera jaistea 2024an eta 28 urtera 2030ean.</p>	<p>Gaztelagun programak 7.288 gazte onuradun ditu 2024ko maiatzean, eta 18 milioi euroko laguntzak ematen dizkie urtean. Beraz, programaren inpaktua ia bikoiztu egin da urtebetean.</p> <p>Gaztelagun programa indarrean jarri zenetik, 11.100 gazte izan ditu onuradun.</p> <p>Lehendakaritza Sailak, Erronka demografikorako Estrategiaren arduradunak, Emantzipa programa jarri du martxan, zeinak 6.165 eskaera jaso baititu. Eskatzaileen batez besteko adina 27 urtekoa da.</p>
<p>Etxebizitza eskuratzeko lankidetzak eta garapen komunitarioko osagai handiagoa duten formulak ezartzea: etxekidetzak (cohousinga), zuzkidura-bizitokiak eta abar.</p>	<p>Etxekidetzako hainbat ekimen bultzatzen ari dira, hala nola Txomin Enea proiektua Donostian (109 etxebizitza), senior etxekidetzako ekimen bat Murgian eta proiektu bat Mendatan.</p> <p>Horrez gain, Arrasaten proiektu bat dago zorroan, eta aldizka etxebizitza kolaboratiborako ekimen berriak jasotzen dira.</p>


Etxebizitza udal-agenda estrategikoetan txertatzea

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Tokiko etxebizitza-planak bultzatzeko lerro bat martxan jartzea, egoerarik ahulenean dauden eta baliabide gutxien dituzten kolektiboetarako etxebizitza eskuragarria lortzen laguntzeko eta etxebizitzaren birgaitze-lanak –batik bat energia-efizientziari eta irisgarritasunari lotutakoak– sustatzeko.</p>	<p>Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten hauek argitaratu ditu: EAEn Etxebizitzari buruzko Estatuko Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio-eremuak izendatzea arautzen duena; bizitegi-merkatuko tentsio-eremuak izendatzeko diagnostikoa eta ekintza-plana prestatzeko eredua, eta Euskadiko tentsio-eremuei buruzko txostena eta udalerrietara zabaldutako azterketa. Argitalpen horiek erraztu eta egituratu egiten dute ondorengo etxebizitza-planetarako lana. Horrez gain, udal-datuak eskaerak tramitatzen ditu Behatokiak.</p> <p>Bestalde, datozen hilabeteetan osatuko den Etxebizitzaren Gida Plan berriak finantzaketa emango du etorkizuneko tokiko etxebizitza-planetarako.</p>
<p>Etxebizitzari lotutako gaiak (hiri-plangintza eta -kudeaketa, gizarte-zerbitzuak, garapen sozioekonomikoa eta abar) lantzen dituzten udal-taldeei trebakuntza eta jardunbiderik onenak eskuratzen laguntzea.</p>	<p>Udalekin bilerak egin dira «EAEn Etxebizitzari buruzko Estatuko Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio-eremuak izendatzea arautzen duena» azaltzeko.</p> <p>Udalak horri buruzko informazioa eskatzen ari dira, eta tentsio-eremu izendatzeko eskaerak ari gara jasotzen zenbait udaletatik. Zumaia eta Errenteria udalerririk aurreratuenetakoak dira prozesu horretan.</p>

Tentsio-eremuak

43 udalerrri detektatu dira 2023an

Gipuzkoa




Guztiz tentsionatutako udalerriak

1	Andoain
2	Arrasate/Mondragón
3	Astigarraga
4	Azkoitia
5	Beasain
6	Donostia / San Sebastián
7	Errenteria
8	Hernani
9	Irun
10	Lasarte-Oria
11	Lazkao
12	Lezo
13	Ordizia
14	Pasaia
15	Soraluze-Placencia de las Armas
16	Tolosa
17	Urmietea
18	Usurbil
19	Zestoa

Partzialki tentsionatutako udalerriak

21	Zarautz
----	---------

Tentsio-eremuak




Bizkaia

Guztiz tentsionatutako udalerriak	
1	Balmaseda
2	Barakaldo
3	Basauri
4	Berango
5	Bilbao
6	Erandio
7	Etxebarri
8	Gernika-Lumo
9	Ortuella
10	Portugalete
11	Santurtzi
12	Sestao
13	Sondika
14	Urduliz

Partzialki tentsionatutako udalerriak	
16	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena
17	Arrigorriaga
18	Bermeo
19	Galdakao
20	Leioa

Tentsio-eremuak

Álava



Guztiz tentsionatutako udalerrriak	
1	Alegría-Dulantzi
2	Vitoria-Gasteiz

Arlo publiko, pribatu eta sozialaren inplikazioa eta lankidetzak

GIDALERROA	ITUNA SINATU ZENETIK GARATUTAKO JARDUKETAK
<p>Gainerako erakunde publikoekiko lankidetzak eta koordinazioak indartzea. Zehazki, elkarlanean mekanismo fiskal berriak aztertu, ebaluatu eta foru-aldundiei proposatzea. Era berean, 3. jardunbidean jasotzen denez, Itunak finkatutako erronketan udal gehiago inplikatzeko, elkarlanean jarduteko, elkarrekin koordinatzeko eta elkarri laguntzeko beharrezko mekanismoak ezarri.</p>	<p>Mekanismo fiskal berriei dagokienez, ikusi dagozkion aipamenak 1.3 gidalerroan.</p> <p>Ezinbestekoa da udal txikiek beren lehentasunen artean etxebizitza aintzat hartzea, kontuan izanda hurbileneko administrazioak direla eta etxebizitza euskal herritarren kezka nagusietako bat dela. Adibidez, 2024ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, eraikinen ikuskapen teknikoa egin behar duten eraikinen % 54,1ek bakarrik egin du, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak udal txikiei laguntza eskaini ikuskapen horien txostenen erregistroa egiteko.</p> <p>Garrantzi handikoa izango da Etxebizitzaren Gida Plan berrian lankidetzak horretarako mekanismo indargarriak ezartzea, eta udalek euren etxebizitza-planak egitea.</p>

3.

Balorazio orokorra eta Itunaren
esparruan bultzatu beharreko
hurrengo jarduketak



Balorazio orokorra

Itunaren 6 jardunbide estrategikoetatik 3tan asko aurreratu da:

- Etxebizitza-politikaren alderdi sozialean sakontzen jarraitzea.**
- Datuen adimena eta ebaluazio aurreratua.**
- Arlo publiko, pribatu eta sozialaren inplikazioa eta lankidetzeta.**

Horietatik 2tan —inbertsio handiagoa etxebizitzan, fiskalitate sustatzaile batean oinarrituta, eta eraikuntza-sektore erakargarri, lehiakor eta berritzailea eratzea— etengabekoa da lana, eta emaitzak, apalak badira ere, itxaropentsuak ere badira. Hala, lehenbizikoari dagokionez, inbertsio publikoa handitu egin da, baina fiskalitate berritzailearen inguruko aurrerapenak ez dira agerikoak oraindik. Sektorea berritzeko jardunbideari dagokionez, urratsak egin dira ezagutza sortzeari dagokionez, baina ekintza zehatzak bultzatu behar dira oraindik, hasierako prestakuntzaren eta lanbide-birziklapenaren aldetik.

Azken jardunbidea dela eta —etxebizitza udal-agenda estrategikoetan txertatzea—, hartu-emanak etengabekoak izan arren, etxebizitzak udal-agendako gai nagusietako bat izan behar du, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Gida Plan berriak ere heldu behar dio.

Itunaren helburu kuantitatiboetan, berriz, etxebizitzaren birgaitze-lanen arloan lortu dira emaitzarik pozgarrienak, 2023ko itxierako datuak eta 2024rako aurreikuspenak bikainak baitira. 1. eta 2. lerroetako laguntzetan 33,8 milioi euro eman dira, 3. lerroa 2,8 milioi euro bideratu dira eta Next Funtsek beste 62,8 milioi euro batu dituzte 2023ko ekitaldirako. Eragindako inbertsio pribatua 221 milioi eurora iritsi da 2023an 1., 2. eta 3. lerroetan, eta 244 milioira Next Funtsekin finantzaturako 3. eta 4. birgaitze-programetan.

Itunaren esparruan sustatu beharreko hurrengo jarduketak

- Euskadin egin beharreko erreforma fiskalean eragiteko gaitasuna izatea, erreforma hori Itunean ezarritako lehentasunekin bat etor dadin.
- Eragile pribatu eta sozial gehiago bideratzea etxebizitzaren arloko jarduketak finantzatzera, alokairu eskuragarria eta etxebizitzaren birgaitzea ardatz hartuta.
- Finantza-tresna berriak diseinatzea, etxebizitzaren birgaitze-lanetarako laguntzak erakargarriagoa izan daitezen, batez ere Europako Inbertsio Bankuan (EIBn) eta Europako proiektuetan jarritz arreta.
- Babestutako etxebizitzarako lurzoru publikoaren erreserba estrategikoaren sorrera azkartzea.
- Gazteek etxebizitza eskuratzeko neurriak indartzea, betiere Eusko Jaurlaritza osoan koordinatutako estrategia baten bidez.
- Udalei tentsio-eremuak izendatzen laguntzea, alokairuaren prezioak mugatzeko, 12/2023 Estatuko Legeak horretarako aukera ematen duela aprobetxatuz, eta kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada ere, inplikaturako udaletatik abiatu behar dela proposamena.
- Arreta berezia jartzea etxebizitza udalen agenda estrategikoetan txertatzeko jardunbide estrategikoan.
- Lanbiderekiko lankidetzaz zehaztea, eraikuntza-sektoreari kalitate handiagoko prestakuntza emateko eta sektorean langile gehiago sartzea bermatzeko, enpresen beharrei erantzute aldera.
- Etxebizitzaren Gida Plan (2024-2026) berria diseinatzea, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren lehentasunekin eta baterako jardunbideekin bat etorrira.
- Etxebizitzaren Euskal Behatokia indartzea, Euskadiko etxebizitzaren egoera etengabe analizatu, diagnostikatu eta ebaluatzeko erreferentzia gisa.
- Etxebizitzaren Euskal Foroa martxan jartzea, eragileek Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez parte hartzeko espazio egonkorra izan dadin.